

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure elkartean oso garrantzitsua da bezeroak eta langileen arteko harremana, gure langileak denbora osoa egoten direlako haiekin. Sortu nahi dugun harremano konfiantzazkoa, kalitatezkoa eta pertsonala da.

Guk gure bezero bakoitzari eskaini nahi diogu harreman zuzena da, bakoitzaren beharrak guzti-guztiak asetzeko, eta hiek guregan konfiantza eukitzeko. Halaber, gure zerbitzuak primerako kalitatea eukiko dute.

Gure zerbitzuaren ezaugarri nabarmenenak honakoak dira:

Laguntza pertsonala

Guk bezeroarekiko eskaintzen dugun harremana batzuetan indibiduala da. Orokorrean denei harreman berdina eskaintzen diegu, baina, norbaitek behar desberdin bat behar badu arazorik gabe bere beharretara egokituko gara. Adibidez, norbaitek gurpil-aulki bat erabiltzen badu, arduratuko gara jarduera guztietan pertsona horrek eroso egoteaz.

Laguntza profesionalak

Gure langileak eskaintzen duten harremanak bezeroarengana arduratsuak eta konfiantzazkoak dira, gainera, gai diren pertsonak dira eta eguneroko lanak egiteko motibatuta daude.

Bestalde, enpresan sartzen diren langile berri guztiei beharrekoa irakasten zaie, informazio guztia. Gainera, behar denean berriro erreparasatzen dira behar diren irakasketak; adibidez, bihotz-biriketako bizkortze kurtsoak; eta informazio berria behar denean irakasten zaie.

Dirua itzultzea

Bezeroa edozein arazo izaten badu edo zuzenean ez badu nahi gurekin jarraitu, arazorik gabe joan ahalgo da. Gainera, kurtso hasieran eman zuen kuotaren zati bat bueltatuko zaio, baina, joaten den hilabetearan arabera. Adibidez, gure elkartean sartzeko edozein hilabetean sartu ahal zara eta sartzean 50 euroko kuota ordaintzen duzu. Orduan, urrian

sartzen bazara eta martxoan joan nahi baduzu, gainerako hilabetetako dirua bueltatzen zaizu, kasu honetan 25 euro.

Kexak

Bezeroak edozein motako arazo edo kexa bat badauka, gurekin hainbat modutan komunikatu daiteke, ez zaio inori eskubide hori kenduko Web orrian sartuta bezeroarentzako esparruan (<https://bazaitziber.wixsite.com/website/>), elkartearen telefono zenbakira deituz, elkartearen ofizinetan kexa papera eskatzen, gmailen bidez gmail bat bidaltzen etb. Elkarteak arazorik gabe kexa horiek hartuko eta irakurriko ditu, azkenean denen artean hobetzeko eta denek gustora egoteko.

Iradokizunak

Gure elkartearen iradokizunak oso garrantzitsuak dira, bezeroaren parte hartzea eskatzen duelako eta azkenean hori oso garrantzitsua da zerbitzuak haiek jasotzen dituztelako. Bezeroak iradokizunak bidali ahal izango ditu kexak bezala, Web orrian sartuta bezeroarentzako esparruan (<https://bazaitziber.wixsite.com/website/>), elkartearen telefono zenbakira deituz, elkartearen ofizinetan kexa papera eskatzen, gmailen bidez gmail bat bidaltzen etb. Eta zer nolako proposamenei buruz hitz egiten badugu, batez ere jardueren edo irteeren proposamenak bilatzen ditugu. Haiek parte hartzeko eta nahi duten jarduera edo irteerak egiteko; adibidez, dantza tailer bat egin nahi badute edo herri batera joan.



Bezero berriak erakarri

Bezero berriak erakartzeko, dauzkagunak mantentzeko eta gure elkarte hasteko, guretzat garrantzitsuena kalitatezko zerbitzuak eskaintzea da, eta uste dugu hori dela bestelako enpresetatik ezberdintzen gaituena. Guk eskainiko ditugun zerbitzuak kalitate ezinhobea daukate. Hasteko, gure langileri guztia prest dago lan hori egiteko, eta horrek lan egokia eta kalitatezkoa egitea ahalbidetuko du. Bezeroak kalitatezko zerbitzuak jasotzen baditu, gure elkartean jarraituko du, eta gainera jende gehiago animatuko du gure zerbitzuak jasotzeko.

Osasun segurtasuna

Badakigu orain koronabirusarekin osasun segurtasunaren kezkak daudela. Gu, gure bezeroak lasaitasun osoarekin ekintzak egiteko hainbat prebentzio neurri ditugu. Hasteko, jende guztiari eskatuko diegu tenperatura bere etxean hartzea, berdin du langilea edo bezero izan; gainera, gu berriro elkartean tenperatura hartzen dizugu sarreran, horrekin batera gel hidroalkoholkoa aurkituko dute. Gainera, ukituko duten guztia desinfektatuta egongo da eta elkarte osoan gel hidroalkoholkoa aurkituko dute edozein momentutan eskuak desinfektatzeko aukera izan dezaten.